

XVIII. MENDEA: ANTZINAKO ERREGIMENAREN KRISIA

1. ANTZINAKO ERREGIMENA

- **Zer da:** Europan erregimen feudal klasikoaren ondorengo erakuntza sozial, politiko eta ekonomikoa, Iraultza Frantsesera bitartekoa.
- **Ezaugarri nagusiak:** nekazaritzan oinarritutako jauntxoek ekonomia, monarkia absolutua eta estamentuzko gizartea.

2. XVIII. MENDEKO EUROPA

XVIII. mendearan hasieran, ia Europa osoa Antzinako Erregimenaren menpean zegoen.

2.1. EKONOMIA

2.1.1. Jauntxoek nekazaritza

- **Nekazaritza** zen **jarduera ekonomiko garrantzitsua**. Iraupeneko nekazaritza: etekin oso txikiak, autokontsumorako, trukeak urriak eta herriko edo eskualdeko merkatuetan.
- Ekonomiaren erritmoa uzten araberak: elikagaien urritasun garaian prezioen igoera, ondorioz gosea eta miseria, eta askotan, herriaren matxinadak.
- **Lurra noblezia** eta **elizaran** eskuetan. Biztanle gehienak nekazariak ziren; jauntxoek lurra landu eta zergak ordaintzera behartuta zeuden.

2.1.2. Zabalkunde ekonomikoa

- **Hazkunde demografikoa** Europan. **Arrazoiak:**
 - Bake garaia: Utrechtoko itunaren sinadurak nazioarteko egonkortasun egoera luze bat ekarri zuen; garai honetan gatazkak jarduera diplomatikoen bitartez eta herrien arteko aliantza eta itunak izenpetuz konpontzen saiatu ziren.
 - Izurrite handien amaiera.
 - Labore berrien landaketa (patata, artoa).
- Hazkunderaren **ondorioak ekonomian:**
 - Ekoizpenen eskaintzak gora egin zuten, eta ondorioz, prezioen igoera eman zen.
 - Ondasunen jabeek, etekin gehiago lortzeko, **ekoizpena handitzea** erabaki zuten.
 - **Monarkiek hazkuntza ekonomikoa bultzatu** zuten: nekazal erreformak indartu, luxuzko objektuen matufakturak finantzatu, elkarte komertzialei babesa eskaini... Merkataritzak nabarmen egin zuten gora.

- **Garraioaren garrantzia:** komunikazio bideak asko hobetu ziren (errepideak, kanalak).
- Dena den, Europatik kanpoko lurraldeekin egiten zen itsas merkataritzak, hots, **komertzio kolonialak** izan zuen hazkunde handiena.

2.2. MONARKIA ABSOLUTUA

- Ezaugarriak:
 - Monarkiak **Jainkotiar izaera** zuen.
 - **Erregearengan** biltzen ziren **aginte guztiak**.
 - **Gobernatuak** inolako **eskubiderik ez zuten menpekoak** ziren.
- Hala ere, **aholkuak** ematen zizkioten erakunde batzuen laguntza zuen: **Estatuko Kontseilua eta Parlamentua** (Estatu Orokorrak, Frantzia; Gorteak, Espainia). Parlamentua: hiru estamentuetako ordezkari osatutako erakundea.

2.3. ESTAMENTUZKO GIZARTEA

Gizarte itxia: gizon eta emakume bakoitza jaiotzaren arabera estamentu edo orden baten baitakoa zen, eta gizartean mailaz igotzea ia ezinezkoa zen.

2.3.1. Pribilegiatuak: noblezia eta kleroa

- **Jauntxo-erregimenean ustiatzen** zituzten **lur eremu zabalen jabe**. Lurraren errentetatik bizi ziren; **Elizak hamarrenak** biltzen zituen.
- Goi **karguen monopolioa**.
- **Zergak ordaindu** beharrik ez.
- Elizaren barruan, bereizi: **goi-kleroa** eta **behe-kleroa**.

2.3.2. Pribilegiorik gabeak: Estatu laua

- Biztanleriaren **gehiengo zabala** (%90 - %95).
- **Egoera ekonomiko eta sozial oso desberdina zuten pertsonak**, baina pribilegiatuenganako oposizioak eta gizarte berdintasunaren aldarrikapenak bateratu egin zituen.
- Taldeak:
 - a) **Burgesia:**
 - Artisanu handiak, merkatariak eta bankariak.
 - Aberastasun handiak pilatu zituzten mende honetan.
 - Helburua: botere politiko handiagoa eskuratzea.

- b) **Hirietako talde herrikoiak:** artisau txikiak, zerbitzariak, soldaduak...
- c) **Nekazariak:**
 - Biztanleriaren gehiengoa.
 - Baldintza gogorretan bizi ziren; pribilegiatuen lurak lantzera eta hauei zerga itzelak ordaintzera behartuta.

3. PENTSAMENDU ILUSTRATUA

3.1. ZER DA ILUSTRAZIOA?

- XVIII. mendeko (**Argien Mendea**) Europan garatu zen **korrante intelektuala, Antzinako Erregimenaren printzipio guztiak kolokan jarri** zituena.
- **Aurrekariak:**
 - **Locke:** absolutismoa kritikatu eta botereen arteko banaketa planteatu zuen.
 - **Newton:** behaketan eta aurretik planteaturiko egitateen frogaketan oinarrituriko metodo zientifikoa sortu zuen.
- **Idei nagusiak:**
 - **Arrazoia** da mundua ulertzeko bitarteko bakarra.
 - Gizateriak, adimenaren gidaritza jarraituz gero, **ezagutza** lortuko du.
 - Ezagutza da **zoriontasunaren** oinarri (giza izatearen helburu gorena).
 - **Hezkuntzaren** eta **aurrerabidearen** defendatzaile sutsuak ziren.
 - **Tolerantzia** giza harremanen oinarria da.

3.2. FILOSOFOK

- Pentsalariak: **Montesquieu, Voltaire, Diderot, Rousseau.**
- Defendatzen zuten ideia: gizakien arteko **askatasuna** eta **berdintasuna; mugikortasun soziala** eta **meritua** pertsonen **balioaren** eta **adimenaren** arabera ezarri behar.

3.2.1. Pentsamendu ekonomikoa: fisiokrazia

- **Nekazaritza** da herrialde baten **aberastasunaren oinarria**, biztanleei bizi iraupena bermatu eta ekoizpenak pilatzea ahalbidetzen dien jarduera.
- **Jabetza pribatuaren** eta **industria** eta **merkataritza askatasunaren** alde, eta Estatuak ekonomian esku hartzearen aurka.

3.2.2. Pentsamendu politikoa: liberalismoa

- **Montesquieuk botere banaketa** defendatu zuen: **legegilea, exekutiboa** eta **judiziala**.
- **Rousseauk nazio subiranotasunaren** printzipioa planteatu zuen: boterearen jatorria hiritar guztien onarpen librean kokatzen da, eta hau **botoaren** bidez adierazten da.
- **Voltaire:**
 - Erregearen boterea mugatzen zuen **parlamentuaren** beharra.
 - **Ogasun sistema** berria.

3.3. ENTZIKLOPEDIA

- **Diderot** eta **D´Alembert** pentsalarien asmoa: garaiko ezagutza guztiak bilduko zituen obra handi bat argitaratzea, arrazoian eta naturaren azterketan oinarrituko zena.
- Idazle garrantzitsuenek parte hartu zuten eta **ideia ilustratuen hedapenean** funtsezko tresna izan zen.
- Asko ugaldtu ziren ideia berri hauek eztabaidatzeko **akademiak** eta **saloiak**.

4. ABSOLUTISMOAREN HAUSTURA

4.1. INGALATERRA ETA HERBEHEREAK

XVII. mendearan amaieran, **Ingalaterran eta Herbeheretan**, monarkia absolutuen boterea mugatu zuten hainbat **aldaketa politiko** eman ziren.

4.2. DESPOTISMO ILUSTRATUA

- Herrialde askotan absolutismoaren aginte printzipioa eta aurrerabidearen, arrazionalizazioaren eta modernitatearen ideiak bateratzeko saiakera egin zuten (adibidez, Espainiako Karlos III.ak).
- Politika erreformista bat bultzatzen saiatu ziren, baina erregearen erabakitze gaitasunari uko egin gabe. **Despotismo Ilustratuaren** leloa: “Dena herriarentzat, baina herririk gabe”.
- **Erreformaren ezaugarriak:** estatuaren administrazioaren arrazionalizazioa, nekazaritzaren modernizazioa, eskulangintzaren garapena, komertzioaren liberalizazio partziala, etab.
- Esperientzia erreformista hauen **arrakastarako aukerak mugatuak** ziren, ezinezkoa zen ekonomia erreformatu estamentuzko gizartea eta botere absolutua ukitu gabe.
- Bide erreformista honen kontraesanek XIX. mendeko iraultza liberalei bidea ireki zieten.

5. IRAULTZA AMERIKARRA

- XVIII. mendearen hasieran, Ipar Amerikako ekialdeko kostaldean zeuden **hamahiru kolonia ingelesek**, askatasuna eta berdintasunaren ideiek hauspotuta, metropoli baten aurkako **lehenengo altxamendu koloniala** burutu zuten.
- Kolonoak ez zeuden ados:
 - Metropoliak ezarritako **zergekin** (adibidez, tearen zerga).
 - Britainia Handiak ezarritako **monopolio komertzialarekin**.
 - Kolonoek **ez** zuten **ordezkaritzarik Londresko Parlamentuan**.
- 1776ko uztailaren 4an, hamahiru kolonietako ordezkariak **AEBen Independentzia Deklarazioa** idatzi zuten Filadelfian (sarrera Thomas Jeffersonek idatzia).
- Gerra luzea izan zen. Independentzia 1783an lortu zuten. **George Washington** AEBetako lehen presidentea izendatua izan zen.
- 1787an **konstituzioa** idatzi zuten. Ezaugarriak:
 - **Botereen** arteko **banaketa** (legegilea, exekutiboa eta judiziala).
 - **Gobernu eredu errepublikarra**.
 - **Egitura federala**: Estatuak autogobernurako gaitasun handia zuten, eta Estatuaren gainetik gobernu federala zegoen (kanpo politika, defentsa...).
 - **Eskubideen deklarazioa**.
- **Iraultza amerikarrak** eragin handia izan zuen mundu osoan, **Europa** barne.

6. XVIII. MENDEA ESPAINIAN: BORBONDARRAK

6.1. ONDORENGOTZA GUDA (1701-1714)

- Karlos II.a ondorengorik utzi gabe hil zen. Bere oinordeko, Felipe Borbon printze frantsesa izendatu zuten, **Felipe V.a**; Espainian borbondarren dinastia eta eredu absolutista frantsesa ezarri zen.
- Izendapen honen aurrean, erreakzioak:
 - **Europako potentzi ugari aurka** jarri, Europa mailan Borbondarren indartzea suposatzen zuelako.
 - Britainia Handiak, Herbehereek, Portugalek eta Austriar inperioak guda deklaratu zioten Frantzia eta Espainiari.

- Herrialde hauek, Felipe V.a ordezkatzeko, **Austriako Karlos artxidukea** proposatu zuten.
- **Gaztela** borbondarraren alde azaldu zen, baina **Aragoiko Koroako** lurralde gehienak austriar hautagaiaren alde jarri ziren, **foruak** galtzeko beldur zirelako.
- Bere anaiaren heriotzaren ondoren, Karlos artxidukeak Austriako koroa jaso zuen. Ondorioak:
 - Habsburgotarren boterearen beldur, Britainia Handiak eta Herbehereek Karlos artxidukeari elkartasuna ukatu zioten.
 - **Utrechtko ituna** sinatu zuten; nazioarteko gatazkari amaiera eman eta Felipe V.a Espainiako errege gisa onartu zuen.

6.2. BORBONDARREN ABSOLUTISMOA

- Felipe V.ak eta Fernando VI.ak **absolutismo zentralista frantsesa** ezarri zuten.
 - Botere guztiak erregearenak eta gorteak ia indargabeturik.
 - Erregeak, agintzeko, berak zuzenean izendatutako aholkulari edo idazkari batzuen laguntza zuen.
- **Lurralde osoa bateratu** zuten:
 - **Legedi** bakarra, **administrazio** berbera eta **erakunde** guztien homogeneizatzea inposatu.
 - **Planta Berriko Dekretua**: Gaztelako administrazio sistema Espainiako lurralde guztietan inposatu.
 - Lurraldea **probintzian** banatu:
 - Bakoitzaren buruan **kapitain jeneral** bat (gobernadore).
 - Justizia administraziorako, **entzutegiak** sortu.
 - Udalerrien gobernurako, **zuzentzaileak**.
 - Zergen bilketarako, **intendenteak**.

6.3. ILUSTRAZIOA ESPAINIAN

- Espainiako ilustratuen **helburuak**: hazkunde ekonomikoa, gizartearen erreforma, irakaskuntzaren hobekuntza eta espainiar kulturaren modernizazioa.
- **Pentsalariak**: Floridablancako kondea, Campomaneseko kondea...
- Ideiak zabaltzeko **eragozpenak**: burgesia eskasa, intelektualak atzerakoiak eta Eliza katolikoaren eragin izugarria.
- Ilustratu gehienek, erreformak burutzeko, erregearekin elkarlanean amaitu zuten. **Karlos III.ak** hartu zituen **neurri erreformisten ondorioak**:
 - Populazioak gora egin.
 - Nekazal ekoizpenak gora egin.
 - Merkataritzak eta industriak modernizaziorako bidea hartu.